

# BETOLAZA

– ARABA / ÁLAVA –

Betolatza herria Arabako hiriburutik 12 km-ra dago, iparraldera. Gasteiztik joateko, Legutiorantz abiatuko gara autobiatik –lehengo N-240 errepide nazionaletik–, Lukoko irteeraraino. Han, A-4401 toki-errepidea hartuko dugu, Betolatzarantz, zein biribilgunetik 2 km ingurura dagoen, Arratzua-Ubarrundia udalerraren eta Zuiako koadrilaren barruan.

Bere kokalekua dela eta, Betolatza Gorbeiazen hegaletatik Aramaio haranerantz eta Ganboako bi-deetatik Arlabanerantz zihoazenen gurutzagunea izan zen. Bertan elkartzen ziren Gasteiztik etorritako mandazain eta garraiatzaileak Gipuzkoatik Arlabanen zehar edo Deba Garaiko bideei jarraituz iritsitakoekin, bai eta Barazarretik eta Ubidetik igotzen ziren bizkaitarrekin ere. Erdi Arotik jada mugimendu handikoa izandako toki hau dorre batek defendatzen zuen, gaur ez badago ere, Micaela Portillak *Gasteizko Elizbarrutiaren Monumentuen Katalogoan dioenez*.

Betolatza Donemiliagako *Reja* deritzon agerian aipatzen da jadanik, XI. mendean, *Betellogaba* izenaz, Ubarrundiko barrutiaren baitan, ordurako, monasterio errioxarrari urtean burdinazko bi hesiburdina ordaintzen zizkiolako zehaztapenarekin batera. Gamarra Nagusiarekin batera –garai hartan hori Ubarrundiaren barruan baitzegoen– barrutia osatzen zuten hemeretzi herrietako garrantzitsuenetakoa zen. Biek ere hogeina bizilagun zituzten, herri gehienek hamar etxe baino ez zituztelarik, eta beste lau kopuru horretara ere ez ziren heltzen. Betolatza herri jendetsua eta aberatsa zen, eta fabrika oneko eta ondo apainduriko tenplu erromaniko bat altxatu zuen, gaur egun oraindik badiraute hondarrek egiaztatzen dutenez. XIII. mendearen amaieran, bost onuradun zituen herriak.

La localidad de Betolaza se encuentra situada a unos 12 km al Norte de la capital alavesa. Para acceder a dicho pueblo, se sale de Vitoria-Gasteiz con dirección a Legutiano por la autovía, antigua carretera nacional N-240, hasta la salida de Luko, donde se continúa el camino por la carretera local A-4401, con dirección a Betolaza, que dista unos 2 km de la rotonda. Betolaza pertenece al municipio de Arrazua-Ubarrundia y forma parte de la cuadrilla de Zuia.

Por su situación, Betolaza fue un cruce de comunicaciones, desde las laderas del Gorbea hacia el valle de Aramaiona y desde las rutas de Gamboa hacia Arlabán. En la localidad se encontraban los arrieros y trajineros que llegaban desde Vitoria, con los que procedían de Gipuzkoa por Arlabán o por los caminos del alto Deva, y también con los vizcaínos, que subían por Barázar y Ubidea para entrar en Álava. Este lugar, transitado desde el medioevo, estuvo defendido por una torre, hoy desaparecida, pero bien documentada, como recoge Micaela Portilla en el *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria*.

Ya en el siglo XI, en el documento de la Reja de San Millán, se cita a Betolaza, donde consta que pagaba al monasterio riojano dos rejas de hierro al año con el nombre de *Betellogaba*, y dentro del alfoz de Ubarrundia. Era, junto a Gamarra Mayor –que estaba por aquel entonces dentro del alfoz de Ubarrundia–, uno de los pueblos más importantes de los diecinueve que formaban la circunscripción. Ambos contaban con veinte vecinos, mientras que la mayoría sólo tenía diez casas, y cuatro de ellos no llegaban a este número. Era Betolaza una localidad poblada y rica que levantó un templo románico de buena fábrica y bien decorado, como lo demuestran los restos que aún se conservan, y que a finales del siglo XIII contaba con cinco beneficiados.

## *Jasokundeko Andre Maria eliza* *Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción*

**E**LIZA HERRIAREN sarreran dago, hegoaldean. Gaur egun, gizarte-etxea den tenplua aurritan eta gurtzarik gabe zegoen 1960an, Micaela Portillak *Gasteiz-ko Elizbarritiaren Monumentuen Katalogoan* dioen eta bertako bizilagun batzuek oraindik ere gogoratzen duten legez. Eraikina zertarako altxatu zen gogorarazten diguten eta geroagoko garaietakoak diren elementuak alde batera utzirik, hegoaldeko horman dagoen portada erromanikoari erreparatuko diogu bereziki.

Jatorrizko portada hori 1964an inauguratu eta gaur gurtza-egintzarako erabiltzen den kaperan dago. Baoa hormaturik dauka, eta barruko burualdea itxuratzen du, tenplu txikian gailentzen den Kristo Gurutziltzatuaren irudirako harri landuzko marko aberatsa osatzen duelarik. Portada XIII. mendearen hasierako ale interesgarria da, eta beraren apaindura joriak Miñao Barreneko elizako hegoaldeko leihatea gogorarazten digu, berarekin zuzenean lotaraziz. Baoa arku zorrotz bat da, arkubarnerako eta arkugainerako apaingarriak, zerra-hortzetan oinarrituak, jasotzen dituen baketoi liso batez osatua. Horren inguruan, motibo geometrikoak eta landare-apaindurak dituzten lau arkibolta eta deskarga-arku bat ageri dira.

Lehenengo arkiboltan, folioloak irekirik dauzkaten hostoen ilara bat ikusten da; dobelak batzuetan, erdiko nerbioa nakaratua da, eta beste batzuetan, lisoa. Hostoak ardatz modura ezarritako foliolo liso handiago eta luzeago baten bi aldeetan daude. Baina arkibolta horren osagairik interesgarriena eskuinaldeko lehenengo dobelan aurkitzen dugu, inon ez baitzegoen apaindura erakargarri eta original horren berri, Zoilo Callejaren begi behari eta adituek aurkitu eta jakinarazi arte. Dobelan, erdiko ardatzaren eta folioloen interpretazio askea ageri da, bi motibotan islatuak: hor, ardatz gisa, gainazal osoa hartzen duten buruxka-erako ebakiguneak dituen arrain-forma bat eta beraren bi aldeetako folioloak itxuratzen dituzte; goiko motiboan, foliolo horiek forma ahurreko eri-mamiak dirudite, eta behekoan, forma ganbileko atzazalak, horietako bitan, oso hazpegi eskematikoak dituzten baina erraz identifika daitezkeen bi aurpegi ageri direlarik. Arkibolta horrek, arkubarnerako eta arkugainerako zerra-hortzak ez ezik, oso xakeztadura ederreko banda bat ere badu.

Bigarren arkibolta bertikalean jarririko akanto-hostoek osatzen dute, nerbio perlatsuko folioloak bizpahiru nerbio perlatsuk itxuraturiko erdiko ardatz baten bi aldeetan –eta puntak aurrerantz iraulita– ageri direlarik. Hostoen elkarguneetan eratzen diren triangelu trepanatuek

**L**A IGLESIA se halla a la entrada del pueblo, en la parte sur. El templo, hoy utilizado como centro social, estaba en estado ruinoso y sin culto en 1960, como recoge Micaela Portilla en el *Catálogo Monumental de la diócesis de Vitoria* y como aún recuerdan algunos vecinos. A pesar de los elementos conservados pertenecientes a épocas posteriores, que nos recuerdan la función para la que fue concebido el edificio, vamos a centrar nuestra atención en la portada románica situada en el muro sur.

Tal portada primitiva se halla en la capilla, inaugurada en 1964, y en la que hoy se realiza el culto religioso. Tiene el vano tapiado y sirve de cabecera interior, creando un rico marco de piedra labrada a la efigie de Cristo Crucificado, que preside el pequeño templo. Esta portada es un interesante ejemplar del siglo XIII avanzado, cuyo despliegue ornamental nos recuerda y pone en relación directa con el ventanal sur de Miñano Menor. El vano es un arco apuntado, formado por un baquetón liso, que recoge los motivos ornamentales, a base de dientes de sierra, en el intradós y trasdós del arco; sobre él voltean cuatro arquivoltas y un sobreaarco con motivos geométricos y vegetales.

La primera arquivolta muestra una hilera de hojas con los folíolos abiertos y un nervio central que, en unas dovelas es perlado y en otras es liso; se sitúan a ambos lados de un foliolo liso, más grande, a modo de eje, en el que la largura también es diferente. Pero lo más interesante de esta arquivolta lo hallamos en la primera dovela del lado derecho, en la que se desarrolla una decoración muy interesante y original, de la que no había noticia, pero que no ha pasado desapercibida a un ojo observador y experto como el de Zoilo Calleja, que nos ha proporcionado el dato. Se trata de una interpretación libre del eje central y los folíolos, plasmada en dos motivos. Aquí los vemos convertidos en una forma de pez con incisiones en espiga que cubren toda la superficie, a modo de eje central, y a ambos lados unos folíolos que, en el motivo superior, parecen las yemas de los dedos con forma cóncava, mientras que en el inferior parecen incisas las uñas, de forma convexa, y en dos de ellas dos rostros de rasgos muy esquemáticos pero perfectamente identificables. Esta arquivolta, además de los dientes de sierra en el intradós y el trasdós, lleva una banda con un magnífico ajedrezado.

La segunda arquivolta está formada por hojas de acanto dispuestas verticalmente, donde los folíolos con el nervio perlado se disponen a ambos lados de un eje central, formado por dos o tres nervios también perlados

mugimendua iradokitzen duen argi-ilun sotil eta ederra osatzen dute. Arkubarneran eta arkugaineran, erremate gisa ikusten ditugu zerra-hortzak. Hurrengo arkiboltan, botoi handiak bailiran, kanporantz irteniko erroseten zerrenda bat dago; erroseten petaloak erdigunean dagoen zirkulu trepanatu txikiaren inguruan elkartzen dira. Apaindura hori dena bi zerrenda xakeztaturen artean garatzen da. Laugarren arkibolta baketoi liso bikoitz batek osatzen du: arkubarneran, zerra-hortzez apaindurik dago, eta arkugaineran, trepanaturiko zirkuluen ilara batez errematurik. Multzo osoa errematzen duen deskarga-arkua lisoa da ia osoan, baina xakeztadura argia erakusten du, bi aldeetan, inposta-lerroaren abiaguneetan. Inpostaleroak, arkiboltak eta euskarriak bereizteaz gain, nabarmendu egiten du, bere apaingarriez, xakeztaduraren indarra.

Baoaren alboetako leiho-zangoak muturretan zirkuluerdiak dituzten baketoi lisoak dira, eta zutabearteetan baketoiak dituzten launa zutabek eusten diete bi alboetan. Fuste liso eta monolitikoko zutabeok lantza-itxura, erdiko nerbio nabarmendua eta puntak beherantz ezarrita dituzten hostoen ilara batez apainduriko piramide-enbor baten gaineko atzapardun harroinetan bermatzen dira. Hori dena zokalo luze batean dago oinarriturik. Animalien irudiak

y con las puntas vueltas hacia delante. En la unión entre las hojas, se forman unos triángulos a trépano que crean contrastes de luz, un ligero y bonito claroscuro que sugiere movimiento. En el intradós y trasdós vemos los dientes de sierra como remate. La siguiente arquivolta lleva una franja de rosetas salientes, a modo de grandes botones, cuyos pétalos convergen en torno a un pequeño círculo con trépano en el centro, decoración que se desarrolla entre dos bandas de ajedrezado. La cuarta está formada por un doble baquetón liso, con dientes de sierra en el intradós del arco, mientras que en el trasdós se remata con una fila de círculos trepanados. Sirve de remate a todo el conjunto un sobrearco, liso en su mayor parte, pero que conserva un rotundo ajedrezado, a ambos lados, en los arranques de la línea de imposta. Es una línea de imposta que separa las arquivoltas de los elementos sustentantes y que refuerza con su decoración la contundencia del ajedrezado.

Las jambas de los lados del vano son baquetones lisos, con unos semicírculos en los extremos, que se acompañan por ocho columnas, cuatro a cada lado, con baquetones en los intercolumnios. Las columnas tienen los fustes lisos, monolíticos, y se apoyan sobre basas de garras que se encuentran sobre un volumen troncopiramidal, decorado

*Portada erromanikoa / Portada románica*





*Portada erromanikoa. Ezkerreko aldeko kapitela / Portada románica. Capiteles del lado izquierdo*

eta gizakien aurpegiak erakusten dituzten apaingarriak kapiteletan ageri dira.

Ezkerreko lehenengo kapitelean, aurreko atzaparrak zabalik dauzkan eta atzera begiratzeko duen animalia bat dago; beraren buztana atzeko hanken artean irten eta bizkar gaineraino altxatzen da, eskuinaldetik, hortz estutuek hazpegi ankerrak islatzen dituztelarik. Bigarren kapitelean, lehoia dirudien basapiztia bat basurde bat harrapatzen erakusten duen ehiza-irudi bat dago. Hirugarrena, aurrez aurre begira dagoen gizon-aurpegi bat da: hazpegi fin eta eskematikoak ditu; belarrien atzetik adats ertaina jaisten zaio, xerlo fin eta kaligrafikotan, eta kopeta-ile sotila ere badu. Azkenekoan, buruko kizkurra –gazaren modukoa eta kokotsaren azpiko zinta batez lotua– daraman emakume-buru bat ageri da; aurreko aurpegiak bezala, hazpegi finak ditu.

Portadaren eskuinaldeko lehenengo bi kapiteletan, gizon-aurpegi bat eta dama baten burua azaltzen dira, beste aldekoetan deskribatutako ezaugarri berdinekoak eta,

con una hilera de hojas lanceoladas con el nervio central marcado, y dispuestas con las puntas hacia abajo. Todo se apoya sobre un zócalo corrido. Es en los capiteles donde se manifiestan y recogen los motivos ornamentales, que muestran figuras de animales y rostros humanos.

En el primer capitel del lado izquierdo encontramos un animal con las patas delanteras rampantes y la cabeza vuelta hacia atrás; su cola sale entre las patas traseras y se eleva sobre el lomo del costado derecho, manifestando visibles rasgos de fiereza, ya que tiene los dientes apretados. En el segundo capitel encontramos una escena de caza, donde una fiera, posiblemente un león, hace presa sobre un jabalí. El tercero es un rostro masculino en posición frontal, con facciones finas y esquemáticas, y peinado con media melena por detrás de las orejas, a base de finos y caligráficos mechones, con un ligero flequillo. Por último, encontramos la cabeza de una dama con tocado rizado, imitando el cendal, y barbuquejo; es un rostro de facciones finas, como el anterior.



Portada erromanikoa. Eskuineko aldeko kapitela / Portada románica. Capiteles del lado derecho

zalantzarik gabe, beraiekin erlazionatuak. Arabako eraikin erromanikoetako portadetan eta leihoetan oso maiz irudikaturiko Dama eta Zaldun joko horren isla dira, batzuetan, tenpluetan egiten ziren eraberritze-lanak finantzatzeko, modu batera edo bestera laguntzen zuten nobleen omenez egindakoak. Hirugarren kapitolean, eraztunean pausatutako arrano bat dago, aurrez aurre jarrita eta hegoak zabalik. Azken kapitela aurreko atzaparrak zabalik eta burua atzerantz iraulirik dauzkan beste animalia bat da erakusten du, ezker aldekoan deskribatutakoaren berdina. Hemen aipatutako motibo apaingarriak Zigoitia, Zuia eta Urkabustaitzetik Aiarako Lezamaraino eta Kuartangoraino –Baia ibaiaren ertzean– doan eremu zabalean aurkitzen dira.

Betolatzako antzinako elizaren portada erromaniko hori 1940an geratu zen agerian, hegoaldeko horman, apaizetxea eraitsi zenean. Horrez gain, Erdi Aroko bi leihate eta bi harburutxo ere agertu ziren, horiek Tuestako Santa Maria elizara eramane ziren, 1962an egindako berriztapenean.

En los dos primeros capiteles del lado derecho de la portada encontramos un rostro masculino, seguido de una cabeza de dama, que presentan las mismas características que los descritos en el lado opuesto, pues, sin duda, guardarán relación entre ellos. Muestran ese juego de Dama y Caballero, tan representado en las portadas y ventanas del románico alavés, haciendo referencia, en ocasiones, a los nobles que, de alguna manera, contribuían a la financiación de las obras que se realizaban en los templos. En el tercer capitel encontramos un águila posada sobre el collarino, en posición frontal y con las alas abiertas. El último es otro animal, con las patas delanteras rampantes y la cabeza vuelta hacia atrás, igual al que se encuentra en el lado izquierdo. Los motivos ornamentales descritos los vemos representados en una amplia zona, que abarca desde los valles norteños de Zigoitia, Zuia y Urkabustaiz hasta Lezama, en el valle de Ayala, y Kuartango, en las riberas del río Bayas.

Esta portada románica de la primitiva iglesia de Betolaza apareció en el muro sur al derrumbarse la casa cural en

Betolatzako Gure Amaren Jasokundearen elizan dagoen bataiarriak, Arabako ponte gehientsuek bezala, ontzi erdizirkular liso eta ondo landua du, eta angeluak atzapar modura nabarmendurik dauzkan oinarri karratu batean bermatutako oin oktagonalek eusten dio.

Testua eta argazkiak: RHA

el año 1940, y junto a ella se encontraron dos ventanales medievales y dos canecillos que fueron trasladados a la iglesia de Santa María, en Tuesta, en la restauración realizada en el año de 1962.

La pila bautismal situada en la iglesia de Nuestra Señora de la Asunción de Betolaza es, como la mayoría de las pilas bautismales alavesas, de copa semicircular, lisa y bien labrada, que se apoya en un pie octogonal y una base cuadrada con los ángulos realzados, a modo de garras.

Texto y fotos: RHA

### *Bibliografía / Bibliografía*

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 31-32; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, pp. 268, 278, fig. 161; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 2001, pp. 275-276, fig. 126-133.